


BERRIA



Sagar onenak ikusi eta dastatzeko aukera izango da bihar. marisol ramirez / argazki press

sagar gurtza

sagar uztaren festa | astigarraga

Astigarragako herriak sagarraren mundurekin duen lotura aski ezaguna da. Izan ere, urte osoan, fruitu horrekin lotutako festa eta ospakizun ugari egiten dituzte. Horietan guztietan ezagunenetakoa bihar ospatuko den sagar uztaren festa da. Urtero, Astigarragako Sagardun Patzuergoak jai hau antolatzen du, fruitu honen uzta jasotzeko garaia iristen denean. Elkartea 2003. urteko ekainean sortu zen, Astigarraga aldean sagardogintzarekin zerikusia duten ekitaldi sozio-kulturalak antolatzeko. 12 sagardogilek, 7 kultur taldek eta Astigarragako Udalak osatzen dute.

Azto jaialdi honen lehen eguna ospatu zen; antolatzaileek sagarraren inguruko ma-

**Pintura
lehiaketa,
desfilea eta
azoka egongo
dira**

hai- ingurua egin zuten, eta aditu ugari hartu zuten parte: Zapiain Taldea elkarteko zuzendariak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakariak, sagasti baten arduradun profesionalak... ETBko kazetaria den Joan Carlos Etxeberria izan ze moderatzailea.

Gaur, ordea, festako egunik garrantzitsuena ospatuko dute Astigarragan. Goizetik hasiko da jai giroa, eta bazkaltzeko or-

dua iritsi bitartean luzatuko da. Hasteko, 09:00etatik 13:00etara, sagar uztaren inguruko pintura lehiaketa izango da. Irabazleak 500 euroko saria eskuratzeko aukera izango du. 10:00etan, *Sagar Biltzea* izeneko desfilea hasiko da. Jai giroz betetako martxa izango da; izan ere, bertan sagarrez betetako saskiak eramango dituzten baserritarrak, dantzariak, trikitilariak, sagardogileak eta abeslariak izango dira. Era batean edo bestean, sagarra eta bere fruitu ezagunena, sagardoa, omentzeko asmoz.

10:30etik 14:30era, Sagar azoka egingo dute Foru enparantzan: erakusketak, salmahaiak, dastatzeak eta jai giroa piztuko duten txalapartariak, dantzariak eta abeslariak izango dira. Sagarra gurtzeko eguna izango da, beraz, biharkoa. **maider hernando**

**nora
joan**



ASTIGARRAGA. Eskulanak, egur taila, ukendu eta sendabelarrak, zeramika, Qi Gong, emoziozko adimena, dantza afrobrasildarrak, sormen tailerra, haurrentzako buztin lanak eta literatur tailerra. Horiei buruzko ikastaroak antolatu ditu Udalak. Izen ematea: Hilaren 12tik aurrera, kultur etxean (09:00-13:00 eta 16:00-18:00).

ASTIGARRAGA. Euskalduntzeko maila guztietarako matrikulazio epêa izango da irailaren 12tik urriaren 1era. Kultur etxeko lehenengo solairuan izango dira, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00era. Telefonoa: 943557354.

Zer: Sagar uztaren festa. **Noiz:** Bihar, irailaren 25a. **Non:** Astigarragan. **Antolatzailea:** Sagardun Patzuergoa. **Informazio gehiago:** 943 55 05 75 edo 650 947 704 telefonoan eta www.sagardun.com web orrian.